Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

3771

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 30ekoa, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariarena, Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14. artikuluan zehaztutako eskumenak Giza Baliabideen Zuzendaritzari eskuordetzeari buruzkoa.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14. artikuluak Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari esleitu dio langileen kudeaketa, Segurtasun Administrazioko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratudun langileena izan ezik.

Prozedurak azkarrago, zuzenago, modu eraginkorragoan eta arrazoizkoagoan izapidetu eta ebaztea lortzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. eta 13. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Herrizaingo Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzari eskuordetuko zaizkio ordutegiaren kontrola kudeatzeko eta oporrak hartzeko baimenak emateko eskumenak, bai eta langileen prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroetara eta euskalduntze-ikastaroetara joateari buruzkoak ere (horien gainean dihardu Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezarri duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14. artikuluak), Giza Baliabideen Zuzendaritzako, Azpiegitura eta Baliabide Teknikoen Zuzendaritzako, Segurtasun Sailburuordetzako Kabinetearen Zuzendaritzako, Ertzaintzako Zuzendaritzako eta Udaltzaingoak Koordinatzeko Zuzendaritzako ertzainak ez diren funtzionarioei dagokienez.

Bigarrena.– Aurreko eskuordetzearen arabera ematen diren ebazpen guztietan beren-beregi adierazi beharko da inguruabar hori eta Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariak eman dituela ulertuko da.

Hirugarrena.– Idazki honen bidez eskuordetuko diren eskumenak Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariak bereganatu ahalko ditu edozein unetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Ad-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3771

RESOLUCIÓN de 30 de junio de 2010, del Director de Régimen Jurídico y Servicios, sobre delegación en la Dirección de Recursos Humanos, de determinadas competencias relacionadas en el artículo 14 del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

El artículo 14 del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, atribuye a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios la gestión del personal, excepción hecha del personal adscrito a los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad.

Con el objeto de alcanzar una tramitación y resolución más rápida, eficaz, directa y racional de los correspondientes procedimientos, de conformidad con lo previsto en los artículos 3 y 13 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común,

RESUELVO:

Primero.– Delegar en la Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Interior las competencias de gestión del control horario y de autorización del disfrute de vacaciones y permisos, incluidos los referidos a la asistencia a cursos de formación y perfeccionamiento del personal y euskaldunización, a las que se refiere el artículo 14 del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, con respecto al personal funcionario, no perteneciente a la Ertzaintza, adscrito a la propia Dirección de Recursos Humanos, la Dirección de Recursos Técnicos e Infraestructuras, la Dirección del Gabinete de la Viceconsejería de Seguridad, la Dirección de la Ertzaintza y la Dirección de Coordinación de Policías Locales.

Segundo.– En cuantas resoluciones se dicten en virtud de la delegación antecedente, deberá hacerse constar expresamente tal circunstancia y se considerarán emitidas por el Director de Régimen Jurídico y Servicios.

Tercero.– Las competencias que se delegan por la presente podrán ser objeto de avocación por el Director de Régimen Jurídico y Servicios en cualquier momento, de conformidad con el artículo 14 de la Ley

ministrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 14. artikuluaren arabera.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 30a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.

30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Cuarto.– La presente Resolución entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2010.

El Director de Régimen Jurídico y Servicios,
IÑAKI CALONGE CRESPO.